

Prentsa oharra

Nota de prensa



UDALAK ESTIMATU EGIN DIE OSTALARIEI URA PITXERREAN ATERATZEKO KANPAINAN PARTE HARTZEA

Donostiako Udalak, Ingurumen zinegotziaren bitartez, ekitaldia egin du gaur, hamar establezimenduri eskerrak emateko, kanileko ura Udalak berak partitutako pitxarretan ateratzen ari direlako establezimenduetan azkeneko urte hauetan denetan.

“Udalaren kanpainarik luzeenetako bat da hau –adierazi du Marisol Garmendia zinegotziak–, 2006an hasi baikinen beirazko pitxarrak ematen eskatu zituzten establezimenduei. Harrezkero, 162 ostalaritza-lokalek hartu dute parte, bazkariak edo afariak ematen dituztenek, batez ere, eta 4.600 pitxer banatu dira. Horrek esan nahi du plastikozko botilarik ez dela erabiltzen haietan ura kontsumitzekoan”.

Gogoan izan behar da orain dela hilabete hondakinen gaineko lege berria indarrean jarri zenetik, ostalaritza eta jatetxe establezimendu guztiek beti eskaini behar dietela bezeroei ontziratu gabeko ura kontsumitzeko aukera doan.

Hori dela eta, eskatzen duten establezimenduei pitxer berriak ematea erabaki du Udalak, harik eta dituen pitxer guztiak bukatu arte. Kanpainatik kanpo, establezimenduen jabeek ordaindu behar dute pitxerrak erosteak dakarren gastua. Gaur aintzatetsi diren establezimenduen artean, Bodega Donostiarra, Casino Kursaal, Botanika, Avenida XXI, Cafe Okendo, edo Luka.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Donostia izan zen ekimen hau egiten hasi zen aurreneko hirietako bat; 2006an jarri zuen martxan, eta "Ura? Pitxerrear, noski!" zen leloa. New York, Boston, Paris eta antzeko hiri batzuen adibideei jarraitu zien Donostiak, plastiko hondakina ugaritzeak kezkatuta baitziren ordurako haiek. Ostalaritza Elkartearen laguntza izan zuen kanpaina hark, eta Donostiako txorrotako uraren kalitate ona ere nabarmendu nahi zuen. Ekimenaren aurreneko urtean bertan 70 ostalaritza-establezimenduk egin zuen bat ekimenarekin.

Hemendik aurrera, kanpainaren xedea kanileko ura beste toki eta ekitaldi batzuetan ere edatea sustatzea izango da; kirol eta beste era bateko ekitaldietan, konparazio baterako.

Donostia hondakinik gabe

Dena dela, hondakinen legeak beste borroka bati ere ekin dio: biohondakinenari, nola prebentzioaren alderditik, hala gestioa hobetzearen alderditik ekin ere.

Izan ere, legeak 2030erako jarrita duen helburua da % 50 murriztea elikagai-hondakinak, txikizkako salmentan sortutakoak eta kontsumitzaile bakoitzak sortutakoak, eta % 20 produkzio eta hornidura kateetan galtzen den janaria.

Donostiako Udalak urte batzuk badaramatza elikagai-hondakinen prebentzioa jorratzen. 2018an, esate baterako, jatetxeetan elikagaiak alferrik galtzearen aurkako neurriak jartzeko ekimen bat hasi zuen: "Donostia hondakinik gabe". Aurreneko urtean 16 jatetxek lortu zuten horren bereizgarria, eta jardunbide egokien gida bat ere egin zuen Udalak hondakin gutxiago sortzeko jatetxeetan.

Ondoren, 2019an, beste kanpaina bat egin zuen, eta "Donostia xahuketarik gabe" bereizgarria eman zitzaizen beste 16 jatetxeri eta 17 elikagai dendari. Laster, kanpaina horren beste edizio bat hasiko dugu, eta hotel, elkarte gastronomiko eta jantoki kolektiboetara ere zabalduko dugu.

Edukiontzi marroia biohondakinarentzat

Hondakinen gaineko udal ordenantzaren arabera, orain arte borondatezkoa izan da hondakin organikoak edukiontzi marroira botatzea Donostian. 7/2022 Legearekin, ordea, aldatu egin da hori jarduerentzat (ez hala partikularrentzat); izan ere, legeak jartzen du ekainaren 30etik aurrera jarduerak bereizi egin behar dutela sortzen duten biohondakina, derrigor apartatu behar dutela eta establezimenduan bertan egin behar dutela. Beraz, oraindik edukiontzi marroia irekitzeko txartelik ez duten jatetxeek, tabernek, elikagai-dendek eta abarrek egun hori baino lehen eskatu behar dute txartela, edo biohondakinen kudeaketa pribatua kontratatu bestela, hondakinak biltzeko udal-zerbitzuaren bidez kudeatzen ez badituzte hondakinak.